Herri Aldizkaria
otamotz
2006ko azaroa 121. alea

70 urte Pagoeta auzoan
Pasiotarren ekarpena

KOLABORAZIOA: JOSU AZTIRIA
ELKARRIZKETA: JOSE MARI AZKARATE - MIKEL LANDA
IZERDI PATSETAN: GARAI BATEKO KIROL IZARRAK (I)

GAES

Entzumen Zentroak

ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA, ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO

UROLA GARAIARAKO ZENTRO BERRIA

Areizaga, 4 • Tel.: 943 72 98 83 • URRETXU

Urretxuko musika bandari 1948-49 ikasturtean, Mendiolatarren etxe atzeko enparantzan, ateratako argazkia.
Eserita: Ignacio Mantxola, Luis Manchola, Ramon Esnaola, Jose Maria Arranz, Modesto Arrizabalaga, Julian Azurmendi eta Martin Grandes.
Zutik: Fidel Okariz, Jesus Aranburu, Jose Larreina, Gallego, Gabriel Zamalloa, Eliseo Aldama, Marcos Lizarralde, Ignacio Gonzalez (zuzendaria), Ignacio Txintxurreta, Jose Arrieta, Juan Arrieta, Laureano Mendia eta Antonio Moncalvillo.

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea.
Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

FLEX-KIROLAK
alejandro albisua
☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

Egumendi, S. L.
Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak
Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

Lorea
Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak
☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88
Legazpi, 5 - Zumarraga

natural optics
URRETXU
Lurdes Rodriguez
Optiko-optometrista
Iparragirre,1-Urretxu
☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

-Etxebizitzen eraikuntza
-Industria pabiloiak
-Urbanizazio lanak
MENDIOLA
Eraikuntzak
Labeaga, 9 - Urretxu
☎ 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10

Gaztainak erretzen Ezkion

Fusilamenduen 70. urteurrena

Ahari jokua Agiñan

Goiargi abesbatza Urretxun

Ale honetako argazkiak Gotzon Aranburuk atera ditu.

Aita Pasiotarrak: 70

Onartzeko diren Urretxuko Arau Subsidiario berriek aldaketa handiak ekarriko dituzte Pagoeta auzoan, Ikastola eta Aita Pasiotarren eraikinaren zati bat botatzea eta horien tokian etxeak eta errepide berria egitea aurreikusten baitute. Urretxuren historiako hainbat kapitulu idatzi dira Pasiotarrek egindako eraikin hartan. Komentua, fraide gazteentzako teologia ikastetxea eta ikastola hartu ditu. Gainera, frankismo garaian euskal kulturari babesa eman zitzaion bertan. Aita Jesus Mari Iturriozekin eta Leon Arrietarekin hitz egiten izan gara Pasiotarrek Urretxun egindako lanari buruz.





urte Urretxun

Beheko argazkia Leon Arrietak utzitakoa da eta gainontzekoak Jesus Mari Iturriozek utzi ditu. Behean kofradiaren babesean sortutako kultur ekimenetan parte hartzen zuten gazte batzuk ikus daitezke.
Makurtuta: Leon Arrieta, Gurutz Jauregi, Joxe Austin Orbegozo, Juan Gorrotxategi, Josetxo Gorrotxategi, Juan Luis Peñagarikano eta Jesus Segurola.
Erdiko ilaran: Maria Angeles Juanena, Maria Pilar Sagastizabal, Joxe Leunda, Jose Inazio Salaberria, Mari Karmen Guridi, Bixi Garziandia, Mertxe Zabalo, Angel San Vicente, Joxe Mari Aztiria eta Maribel Etxeberria.
Atzeko ilaran: Arantxa Zaldua, Joakin Ormazabal, Arantxa Arrieta, Lurdes Ormazabal, Begoña Aranguren, Juan Mari Balenziaga, Elias Zabalo, Gregorio Arrieta eta Jose Migel Lasa.

Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteak otamotz.com atari digitala kudeatzeko langile bat behar du

Eskatzen da:
- -Kazetaritza edo antzeko ikasketak eginak izatea
- -EGA

Baloratuko da:
- -IKT eta edizio elektronikoan ezagutza
- -Pertsona dinamikoa izatea
- -Urretxu-Zumarragan edo inguruan bizitzea

Curriculumak bidali mesedez abenduaren 3a baino lehen honako helbidera: zm@euskalnet.net (Gaia: otamotz.com_lanpostua)

HARATEGIA URDAITEGIA
✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 60

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

colors
arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Jesus Mari Iturrioz, hiru a



Jesus Mari Iturrioz 1960an etorri zen Urretxura teologia ikastera eta 1972tik 1981era Ikastolako irakasle eta zuzendari izan zen. 25 urte ondoren, iaz itzuli zen gurera.

Noiz eta nolatan etorri zineten Pasiotarrak Urretxura?

Gure lehenengo etxea 1935ean ireki zen, gerra hasi baino apur bat lehenago. Gabirian etxea genuen, hemendik gertu, baina hura zokoan dago. Han apaizgaiak zeuden, bainuetxea izandakoan, orain baldosa lantegia den horretan. Nik ere hiru urte pasa nituen bertan. Toki handiagoa behar genuen, gure gazteak Tafallara edo Galiziara joan beharra baitzuten ikasketak osatzera. Hala, Irunen eta Urretxun ere etxeak ireki genituen. Bokazio asko ziren eta zabaltzen ari ginen. Gainera, Urretxuko leku egokia zen Gabiriari laguntza emateko. Izan ere, geltokia bertan dago.

Zer asmorekin etorri zineten?

Gure lan bereziak misioak ziren. Bestelakoan, gurean bizi. Bizitza erretiratua. Gero, 1968a arte, etxe hau teologia egiteko etxe egokia suertatu zen eta hemendik misioetan dauden asko pasatu ziren. Filosofiarako Tafalla genuen, nobiziaturako Angosto... Ni neu Gabirian hasi nintzen eta gero Deustuan, Euban, Angoston, Tafallan eta Urretxun izan nintzen. Hemen teologia bakarrik ematen zen. Garai hartan 70 bat lagun ginen hemen, horietatik 50 ikasleak. Lau ikasturte ematen ziren eta portugaldarrak ere etorri ziren.

Halako eraikin handia egiteko, denbora asko beharko zenuten...

Hasieran pabiloi zabal bat egin zen, hegoaldera begira. Hori erretirorako zen. Baina gero Urretxukoa ikasle gazteentzat toki egokia zela eta teologia ikastetxea egin zen. Horrekin batera eliza egin zen. 1950ean hasi ziren lanak, gutxi gorabehera, eta 1953an inauguratu zen. 1951n hasi ziren teologia klaseak.

Noiz eta nolatan utzi zenioten klaseak emateari?

1968an. Institutu guztiok ikasketak bateratzea erabaki genuen eta pauso nabarmena eman zen. Hala, hemengo ikasleak Deustura joan ziren eta euren etxea zena hutsik gelditu zen. Horrek zeresana izan zuen ikastolaren sorrerarekin.

ro ezagutu dituen fraidea

Nola sortu zen Ikastola?

Hemengo ia guztiok euskaldunak ginen eta euskara maite genuen. Euskaldun giro nabarmena zen gure artean, sorreratik. Gure ikasleek euskara ikasteko eta alfabetatzeko aukera zuten. Ni neu hementxe alfabetatu nintzen. Herritarrei ere alfabetatze klaseak ematen zitzaizkien, euskarazko kultur ekimenei babesa ematen zitzaien... Ikastolen sorrera garaian, hemengo gurasoak gugana etorri ziren. Gure datuen arabera, 1967ko urriaren 3an eman ziren lehen eskolak: irakasle bat eta bi laguntzaile, guztiak emakumeak, eta 3 eta 6 urte bitarteko 100 haur hasi ziren. Bi gelatan banatuak, zeuden hasiera hartan. Hamar egun beranduago euskara ikasturteari hasiera eman zitzaion. Urte hartan 170 gazte inguru matrikulatu ziren.

Zer babes eskaini zioten Ikastolari?

Eskolak emateko toki bat eta babesa behar zuten. Legearen aurrean gu ginen irakasleak, nahiz eta lekaideok ez genuen klase bat bera ere ematen. Izan ere, andereñoek ez zuten titulurik. Hori dela eta, kanpotik, Medranotarrak-eta etortzen zitzaizkigun: "inspektorea hemen dabil, kontuz!".

Aurrerago zuek ere klaseak eman zenituzten. Zergatik?

Guk ere gure planteamenduak genituen eta tentsio uneak izan ziren. Izan ere, parrokia-eskola zen, baina bertan elizaren kontra egiten zela iruditu zitzaigun. Gainera, lokalak utzita zeuden eta akordio bat zegoen Ikastolakoekin: euskara eta erlijioa eman behar zituzten. Ordura arte funtzionamenduaren ardura gurasoen esku utzita genuen eta 1970ean-edo gure esku hartu genuen. Joxe Martin Kamino izan lehen zuzendaria, gero Joxe Agustin Berasaluze eta ondoren ni.

Noiz hartu zuen Ikastolak bere bidea?

Gure berezko lana ez zen eskolak ematea eta, gainera, fraide gutxi geunden. Ikastola hazten ari zen eta ezin genion behar bezala erantzun. 1971n 401 ikasle besterik ez zeuden eta 1981ean, berriz, 1.148. Izugarri hazi zen, kontrolik gabe. 1979ko azaroaren 15ean utzi genuen Ikastola gurasoen esku. Egun hartan sinatu genuen beraiekin hitzarmena.

Beranduago, Ikastolak bere eraikina erosi zuen.

1986an izan zen. Guk etxea berritzeko premia genuen eta Ikastolak eraikina erosi nahi zuen. Ikastolaren arazoa leku falta izan da beti. Ni zuzendaria izan nintzen garaian, guk zertxobait gehiago ematea bagenuela iruditzen zitzaidan, baina denok ez ginen iritzi berekoak. Izan ere, gure erretiroak handiak izan dira beti. Nire ustez, gaur egun ere, Ikastolak itxita ikusten du bere burua, ez ditu nahi bezalako lokalak.

Eraikinaren zati bat saldu zenutenerako, fraide gutxi izango zineten.

Bai. Egun sei gaude eta hiru 80 urtetik gorakoak dira. Gazteak hemen zeudenean beste bizitasun bat zegoen, noski. Aldaketak normal eman dira: Ikastolak bere bidea hartu du eta guk ez dugu horretaz zer esan. Ikastola joaten bada, gure etxea ere pikutara joango gara. Gauzak ondo egitea nahi dugu: gune bat aldatu behar bada, egoki egitea komeni da, askatasunez. Eliza defendatu dugu, inguruan merezi duen tokia izan dezala.

> "Etxe hau teologia egiteko egokia suertatu zen eta misioetan dauden asko pasatu ziren"

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Parrokian gabiltza lanean eta horretan jarraituko dugu. Dena den, ez dago gehiegi esaterik. Sei etxe ditugu Euskal Herrian eta Urretxukoa ez da sendoena. Leku ona da lanerako eta gustura gaude, baina, nork daki zer izango den etorkizunean? Dena den, hau toki ona da eta inguruan ez dago beste komenturik.

Zer berezitasun duzue Pasiotarrek?

Kristoren pasioa da gure oinarria, ez pentsioa, nahiz eta batzuek pentsionistak deitzen gaituzten. Gure erretiroak Jesukristoren pasioa Jesukristo gurutziltzatuari begira bizitzeko dira. Etxe barruan bizi dugu nekaldia lehenbizi eta gero jendeari iragarri Jesukristogan agertu dela Jainkoaren maitasuna. Gure sortzailea gurutzeko San Paulo da eta hark garbi zeukan Jainkoaren maitasunaren erakusgarri bikainena Jesukristo gurutziltzatua dela. Ezin da egon hari begira, hark jartzen gaitu jendeari begira. Hori dela eta, aspalditik Amerikan gaude misiolari. Hemen bokazio gutxiago ditugu eta aurki hangoak etorriko dira. Misiolari bezala, ez hemengo etxeak zaintzeko.

Nola ematen duzue eguna?

Goizeko 7.30ak aldera jaikitzen gara eta errezatu egiten dugu. Bakoitzak bere gela dauka eta bulego bezala erabiltzen da. Pastoral lanak prestatu behar dira. Katekesia, adibidez. Haurrei eman baino, gurasoei eman nahi diegu, etxean eman dezaten. Bestalde, El Salvadorren laguntzen ari naiz. Bestelakoan, etxean pasatzen dugu denbora asko. Gauean, goiz erretiratzen gara. Harreman dezente dugu beste elkarteekin. Pilarika egunean, adibidez, hemen elkartu ginen.

Bukatzeko, Urretxun urte asko daramatzazue. Herrian estimatuak sentitzen al zarete?

Baietz uste dut. Aita Ramon, adibidez, oso ezaguna zen, lan asko egindakoa. Hil berri da, 95 urterekin. Jende askok galdetu digu beragatik eta eliza bete egin zen hileta elizkizunean. Azkenekoz etorri nintzenean ere harrera ona izan nuen. Bokazio gehiago egotea gustatuko litzaidake, hemen aurrera jarraitzea ziurtatzeko. Jaioterrian baino denbora gehiago eman dut Urretxun.

Leon Arrieta: Pagoetako

Fraide pasiotarrak ezagutzen dituen urretxuar bat bada, hori Leon Arrieta da. Izan ere, bere familia inguru hartan bizi izan da beti, aita Nekaldiaren Kofradiaren sortzaileetako bat izan zen eta bera ere kidea zen. Oraindik parrokian parte hartzen du eta bertako diru kontuez arduratzen da.

Noiztik du harremana zure familiak fraideekin?

Aitak gaztetatik izan zuen harremana eurekin. Beti ezagutu nuen fraideekin hartu-eman ona zuela. Kofradiaren bitartez egiten zuten fraideek pastoral lana herriarekin. Kofradiak eragileak behar zituen eta horietako bat nire aita zen. Bere lanetako bat kuotak kofradia kideei kobratzea zen eta guk egiten genituen erreziboak, eskuz, mutil koxkorrak ginela.

Zure gazte garaian fraide asko izango ziren hemen.

Ikasleak etorri aurretik bospasei izango ziren. Gero, 100 bat. Kalean ez ziren asko ibiltzen, mendira joaten ziren asko. Oso etxekoak genituen eta gu ere oso etxekoak ginen, akolitoa izan nintzen... Solfeoa, txistua eta dantza ere bertan ikasi nituen, fraideen eta kofradiaren babesean. Orduan oso zaila zen euskal kultura kutsua zuen edozer ekintza kaleratzea. Halako erakunde baten babesean izan behar zen. Nire aitak eta berarekin zebiltzanak abertzaleak ziren eta hori aprobetxatzen zuten. Kofradia, berez, erlijio erakundea zen, baina ibilaldiak eta kultur ekintzak ere bultzatzen zituen.

Jende asko al zen kofradiako kide?

Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko asko, 400-500 lagun edo gehiago. Ez dakit zehazki zenbat, baina eliza bete egiten zen. Hasieran Gabonetan bakarrik ateratzen ginen kalera kantatzera. Gero, txistua jotzera eta dantzatzera ere ateratzen hasi ginen. Antiora egindako txango batean jo nuen txistua jendaurrean aurreneko aldiz. 6-7 urte izango nituen. Solfeoa irakatsi zidan Aita Eusebiok abesbatza ere bazuen. Dantza, berriz, Tomas Sadabak irakasten zuen eta txistua Ramon Esnaolak. Lehenago ere izan zen dantza talde bat eta hango kideak izandakoak gurera etorri ziren.

Gau Eskola ere izan zen.

Folklore giroko epea bukatu zen eta benetako kulturgintzari ekin genion. Orduan hemen errektore zen fraidea ez zen gureetakoa politika kontuan eta beldur ginen, ez genekien nola hartuko zuen. Gure ustearen kontra, ahal zuen guztia egin zuen Gau Eskolaren alde. Gutaz gain, bost fraide behintzat, irakasleak izan ziren eta ez ziguten batere kobratu, ezta argirik ere. Fraideen artean euskal giroa nagusi zen. Egun euskara munduan oso goran dagoen Xabier Mendiguren hemengo fraidea eta Gau Eskolako irakaslea izan zen. Bestalde, Legazpiko Gau Eskola Pagoetakotik sortu zela esan beharra dago. Gutako bi hara joaten ginen eskolak ematera. 50 bat lagun izango ginen Gau Eskola, antzerki eta halakoetan genbiltzanak.

Nolatan sortu zen antzerki taldea?

Geroxeago, 1960 inguruan. Gabiriakoari begira jaio zen hemengoa. Garai batean, Donostiako Maria Dolores Agirre taldea izango zen Euskal Herriko bakarra. Pazkoa bigarrengoan eta Santo Tomas egunean antzezten zuen. Gero, beste herri batzuetan ere sortu ziren taldeak. Gabiriak bikaina sortu zuen. Lan asko egin zuten eta obra asko antzeztu zituzten. Haiek ikusita, nire aitari hemen ere taldea eratzeko gogoa sortu zitzaion. Helburuetako bat Gau Eskolako ikasleei euskaraz aritzeko aukera ematea zen.

Zein ibilbide osatu zenuten?

Gipuzkoa mailan beste herri batzuk ere hasi ziren: Antzuola, Alegi, Tolosa, Legorreta... talde mordoxka sortu zen eta txapelketa antzeko zer edo zer egin zen. Elkartrukeak ere egiten genituen. Oso jaialdi politak egin ziren eta jendeak oso ondo hartu zuen. 20 bat lagun ginen eta 7-8 urte iraun zuen. 15 bat antzezlan prestatu genituen. Abadiñora ere joan ginen. Erramu Igandea zen eta ez zait sekula ahaztuko prozesioan lehenengoz Jesus asto gainean ikusi nuela.

Hori guztia ere Pasioaren Kofradiaren babesean egin zenuten.

Den-dena. Hala ere, emanaldi gehienetan izan genuen arazoren bat. Gobernu Zibilak notatxoren bat bidaltzen ez bazuen, Guardia Zibilak atera etortzen zitzaizkigun. Sociedad General de Autores delakoaren ordezkaria ere etortzen zen, erakundeari zegokion zerga eske. Manuel Lekuonaren, Nemesio Etxanizen... lanak antzezten genituen. Nire aitaren Bilboko lagun batek kofradiarentzat idatzitako lana ere antzeztu genuen. Ikuslego leiala genuen eta antzokia bete egiten zen.

Ikastolaren sorreran ere zeresana izan zenuten.

Nire ustez Ikastolak beste sorrera bat izan zuen. 25. urteurrenean azaldu ziren zenbait gauza ez ziren zuzenak. Ikastola hemen eta kofradiaren babesean sortu zen, beste inon ez baitzegoen halakorik sortzerik. Kofradiak lekua eta babesa eman zuen, baina kanpotik etorri zen eskaera. Bi lagun etorri zitzaizkien nire aitari eta beste bati Ikastola egiteko laguntza eske. Aitak berehala eraman zituen fraideengana. Ez zuten inongo eragozpenik jarri, alderantziz, ahal zuten guztia lagundu zuten. Bi andereño bilatu eta berehala hasi ziren. Gu ibili ginen etxez etxe ume bila. Garai hartan Ikastolak eragin handia izan zuen Urretxu-Zumarragan eta giro oso polita sortu zen. Pertsona askok jarri zuten dirua, baita seme-alabarik ez zutenek eta ezkondurik ez zeudenek.

Zergatik egin zuen behera kofradiak?

Aurrez, Gau Eskola utzi behar izan genuen. Euskaltzaindiak ofizialtasuna eman nahi zien eskola hauei eta, horretarako, La Sallekoen ikastetxeetan jartzea pentsatu zuten. Guri La Salle-Legazpira

fraideen gertuko gizona

joatea eskaini ziguten, baina horretarako titulu bat atera behar zen. Tituluaren eta ofizialtasunaren beharrik ez genuela esan genien. Gure lana egiten ari ginela, inongo irabazirik gabe, eta horretan jarraituko genuela. Jende asko La Sallera joan zen eta gurea bertan behera gelditu zen.

Zer beste arrazoirengatik desagertu zen kofradia?

Hemen hiru fraide oso berezi izan ziren. Hirugarrena kanpora bidali zutenean galdu zuen indarra kofradiak, ezerezean gelditu zen, bere kasa. Ordezkoak ez zion behar adina indar eman. Ikastola hasi zenerako kofradia indarra galduta zen.

Asko aldatu dira gauzak hor goran.

Garai batean fraideek jendearekiko harreman gertuagokoa zuten. Egia esan, kaleko giroa ere aldatu da.

Beraiekin harremana duzu oraindik.

Hor gabiltza parrokia denetik ere. Kuotak kobratzeaz arduratzen naiz, besteak beste. Giroa hotza da eta jendearekiko hartu emana eskasa, askotan konpromisokoa. Aldaketa datorrela esaten dute eta ikusiko dugu noiz. Fraideak ere kezkatuta daude, zer egin ez dakitela askotan. Apaiz gutxi daude eta geroz eta zaharragoak. Zenbait tokitan eliztarrak ari dira elizak aurrera eramaten.

Geroz eta fraide gutxiago, Ikastola beste toki batera eramateko asmoa dago... ez al duzu pena apur batez ikusten hori guztia?

Ez, onerako baldin bada, zergatik ez? Eraikin berri bat egitea beti izango da ona Ikastolarentzat. Hau fraideei erosi aurretik ere hitz egin zen berria egiteaz, baina diru asko behar zen. Halako aldaketa bat ondo etorriko zaio Ikastolari, berria askoz ere egokiagoa izango da, hemen estu samar baitaude. Auzoari dagokionez, txarrik ez du ekarriko.



Josu Aztiria

Ez dago aitzakiarik

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak jende askok erabiltzeak sortzen duen ekoizpen eta truke-sistemari deitu izan zaio Informazio Gizartea. Baina, "totem" edo inork zalantzan jartzen ez dituen horrelako kontzeptuen atzean arrisku eta mehatxu geroz eta handiagoak daudela ez dugu zalantzan jartzen. Informazio-gizartea deitzen zaion honetan adierazpen askatasunaren aurkako eraso ugari ikusi ditugu orain gutxi eta hedabideak enpresa asko bezala geroz eta esku gutxiagoetan izatea ohikoa da. Eguneroko informazioaren bahiketa naturaltasunez barneratuta dugu, hedabide-askatasuna merkatu-ekonomiaren beste adar bat besterik bihurtzeraino.

Arestian esandakoarekin ados nago, eta hau guztia aurrez esan behar dut orain kontatu nahi dudana kontestualizatzeko. Izan ere Informazio eta Komunikazio Teknologiek eta Internetek bestelako alternatiba komunikatiboak garatu nahi dituztenentzat potentzialitate handiak dituztela uste dut. Gaur egun, sekulako hedabidea antolatu ezin dutenek baliabide teknologiko errazak eta merkeak dituzte beren ikuspegia, iritziak edo informazioa azaltzeko. Eta zer esanik ez euskarazko hedabideak bultzatzen dabiltzanen edo gizarte-mugimenduen artean. Beste kontu bat da aukera hori erabiltzen ari ote garen edo ez. Internet informazio bide kritikoak eta alternatiboak erabiltzeko baliatzen ez bada globalizazio-tresna eta Estatu indartsuenen hegemonia-tresna bilakatuko da (bilakatu ez bada).

Orain urte batzuk, oraingo iraultzarekin konparatu dezakegun aldaketa teknologikoa eman zen. Autoediziorako tresna teknologikoak sortu ziren, tresna garesti eta konplexuak zirenak erabilterrazak eta merkeak bihurtu ziren, eta hortik etorri ziren emaitzak: aldizkariak, fanzineak, argitaletxe alternatiboak irrati libreak edo tokian tokiko telebistak. Euskal prentsan herri-aldizkarien eztanda eman zen eta hor kokatu beharko genuke, esaterako Otamotz Aldizkaria.

Internetek autoedizioak baino iraultza are handiagoa dakar. Hobe esanda, ekar dezake, baina salbuespen bikainez aparte, tamalez ez gara ari behar bezala aprobetxatzen. Hedabide-sare alternatibo, partehartzaile eta euskaldunak eratzeko aukera alferrik galtzen ari gara.

Eta oraingoan nik uste ez dugula aitzakiarik. Orain arte, honako arrazoi nagusiak erabili izan ditugu euskaraz nahiko hedabiderik ez dugula argudiatzeko: atzerapen historikoa, hizkuntza gutxiagotua garela eta baliabide gutxi ditugula. Euskaldunok hedabideen arloan atzerapen-historiko eta baliabide-urritasunen kontrako borrokatu behar izan dugu. Beste hizkuntza-komunitateak baino beranduago hasi eta ahal bezala ahal dena egitea izan da orain arteko patu gaiztoa.

Oraingoan berriz ez daukagu ohiko bertsio hori hain erraz onartzerik. Lasterketa honetan bateratsu hasi gara beste hizkuntza-komunitateekin eta atzerapen kronologikorik ezin dugu aipatu. Hizkuntza gutxiagotua izatearen ondorio den baliabide falta Interneten ez da hain erabakigarria. Honakoan dirua ez da beste euskarrietan bezain faktore garrantzitsua.

Baina, orain arte, euskarazko hedabideetatik nahiko lotsati eta baldar heldu zaio hedabide-molde berriei. Bestetik, elkarteak eta makroegiturak sortu diren heinean, jende askoren "delegazionismoa" ekarri du. "Horretarako daude euskara elkarteak edo koordinakundeak", pentsatu du jendeak. Eta amaitzeko, dirulaguntzekiko morrontza. Diru laguntzarik ez badugu ez gara kapaz ezer sortzeko. Ez dut esan nahi dirulaguntzarik behar ez dugunik, inondik inora, baina gauzak egiteko diruaren zain ezin dugula egon argi daukat.

Orain edonork sor dezake blog bat, edota irratsaio bat egin edo bideoak igo. Gainera, erraz eta merke. Adibide bikainak baditugu herrian. Ez duela irakurlerik, ez duela eraginik. Bale. Nekatu bazara itxi eta beste gauza batera, baina behintzat ez dugu dirurik galdu. Eta ez da gutxi. "Egin ezazu behar duzuna" Public Enemy-ren leloa martxan jartzeko ordua da. Ez dago aitzakiarik.

Andu Lertxundik zioen Internet zortzigarren euskal probintzia izango dela. Otamotz.com ez da bertako hiriburua izango, baina parte hartzea sustatzeko, herria dinamizatzeko eta euskara interneten bultzatzeko balio badu gustura geundeke. Laster ikusiko dugu elkar.

Artikulu hau Josu Landak Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuan idatzitako Informazioaren gizartea? artikuluan oinarrituta dago.

Aldaketa klimatikoa benetakoa dela uste al duzu? Hala bada, zer nahiago duzu, lehengo eguraldia ala oraingoa?

Daria Beristain

Zer edo zer egongo da. Itxura hori ematen du behintzat. Sekula ez dut aurtengoaren moduko udazkenik ezagutu. Garai batean San Martin egunaren bueltan bero bolada etortzen zen. Orain, berriz, askoz ere luzeagoa. Urtaro bakoitzak bere ohiko klima izan beharko luke.

Aitor Gabirondo

Aldaketa klimatikoa nabaritzen dela uste dut. Hori bai, hedabideetan gehiegi hitz egiten dute horretaz. Zerbait egin behar delakoan nago. Gustura egoten naiz eguraldi honekin, baina kalterako dela uste dudanez, nahiago dut betikoa.

Mari Carmen Valiente

Zer edo zer gertatzen ari da eta arduratuta egoteko modukoa da. Gure ohiturak aldatu beharko genituzke, natura ez kaltetzeko. Lehengoa nahiago dut, oraingoak beldur pixka bat ematen du eta.

Daneth Mendez

Aldaketa handia eman da. Venezuelatik duela 22 urte etorri nintzen eta orduan euria besterik ez zuen egiten. Egia esan, gustura nago eguraldi honekin, nire jaioterrikoaren antza handiagoa du. Zenbat eta bero handiagoa, orduan eta hobeto.

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

DOSSA ZUMARRAGA
Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak...
Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA

Jose Mari Azkarate: Borrokalari nekaezina

Jose Mari Azkarate berandu hasi zen arlo publikoan lanean, baina ordutik gogor ekin dio. LAB sindikatuko kidea izan da urte askotan eta Urretxuko alkatetzarako aurkeztu zen lehen udal hauteskundeetan. Orain, jubilatuen eta alargunen eskubideen alde lan egiten du. Baikortzat du bere burua, ezin bestela Realeko zaletu sutsua izan!

Jose Mari, urretxuar peto-petoa zaitugu.

Urretxun jaiotakoa naiz, 1937an, Santiñe baserrian. Oso garai txarrean jaio nintzen, Gerra Zibilean. Gure gazte denbora oso gogorra izan zen: mila gertaera penagarri pasatu genituen eta gure etxean, beste etxeetan bezala, opresio handia izan zen. Lantegietan oso diru gutxi irabazten zen. Aitak Patrizio Etxeberrian lan egiten zuen eta ama baserrietan aritzen zen familia aurrera ateratzeko. Santiñetik Etxetxora joan ginen eta bertan bizi izan nintzen ezkondu arte.

Umetakoa garai gogorra bezala gogoratzen duzu, orduan.

Bost urterekin hasi nintzen eskolan eta ez nekien erdaraz hitz egiten. Euskara debekatuta zegoen eta burla egiten zidaten. Don Juan Zaitegirekin eta berari laguntzen zion Candido Agirreurretarekin hasi nintzen eskolan. Handik, Don Mateorengana pasatu nintzen. Hura oso erlijiosoa eta frankista zen. Errezatzea eta *Cara al sol* abestea ziren egin beharreko lehen gauzak. Gutxitan joaten nintzen eskolara. Izan ere, ama ekonomista ona zen arren, etxean lagundu beharra nuen. 10 bat urterekin egurra jasotzera joaten nintzen mendira eta gero gozo-dendetan saltzen nuen. Zaku bakoitza sei pezetatan saltzen nuen. Txatarra biltzailea ere izan nintzen. Aitak asteko 99 pezeta irabazten zuen eta nik egun bakarrean 105 pezeta atera nituela gogoratzen dut. Sarraldekoek eskoria errekara botatzen zuten eta guk hura handik atera, garbitu eta saldu egiten genuen.

Dena den, denborarik gehiena Irimo lantegian eman duzu.

13 urterekin sartu nintzen. Hango buruzagi batek ofizio bat irakatsiko zidatela esan zion amari eta hala hasi nintzen. Ordutik jubilatu arte Irimon lan egin dut.

Gaztaroa haurtzaroa bezain gogorra izan al zen?

Koadrilan gazteena nintzen, besteek nik baino sei edo zazpi urte gehiago zituzten eta ardo asko edaten zuten. Ni ere ardoa edaten hasi nintzen eta, gaztea nintzenez, lehenengoa mozkortzen nintzen. Gure

etxean hori oso gaizki ikusia zegoen, nire aita behin ere ez nuen mozkortuta ikusi. 18 urterekin odola bota nuen ahotik eta urdaileko ultzera izan nuen. Ez zen zaila: asko edan eta erre, fundamentuzkorik jan ez... Amari ez zidala gehiago mozkortuta ikusiko agindu nion eta bete egin dut. Andregaia bilatu nuen, 21 urterekin, eta 26rekin ezkondu egin nintzen. Emaztea nafarra da, baina Elorrion bizi ziren eta bertan ezkondu ginen. Emaztea Sarraldenean neskame izan zen eta hala ezagutu genuen elkar.

Nolatan hasi zinen gizarte arloan lanean?

Berandu hasi nintzen, ezkondu ondoren. Gure etxean ez zuten ezer jakin nahi halako gaiez. Izan ere, familia erlijiosoa zen, Francoren gorabeheretan sartzea arriskutsua zen eta gure etxean ez zuten halakorik nahi seme-alabentzat. Baina Irimon konpentsazio kutxa zegoen, langileek baja hartzen zutenerako. Guk eta enpresak jarritako dirua zegoen bertan. Kutxa horren arduradun jarri ninduten eta horrela hasi nintzen halako gaietan. Dena den, gehien mugiarazi ninduena Burgosko Prozesua izan zen. Gertutik jarraitu nuen. 1975ean Irimon hiru hilabeteko greba egin genuen. Garai hartan Comisiones Obreraseko kidea nintzen. Sindikatu horrek dominatzen zuen, ELA ere bazegoen arren. Franco hil zenean, enpresa komitean sartu nintzen, dagoeneko LABeko kide bezala.

Urte haietan ez zen gozoa izango sindikatuan aritzea.

Lemoizko zentral nuklearraren aurka geunden eta ETAk ingeniari bat hil zuen. Greba orokorra konbokatu zuten eta guk ez genuen babestu. Handik astebetera Arregi hil zuten eta gu izan ginen greba konbokatu genuenak. Boto batean "Askasibar, Arrizabalaga y Azkarate son de ETA" jarri zuen norbaitek. Hura gu pistola batekin apuntatzea bezala izan zen. Garai hartan urdailetik operatu ninduten eta ia hilda etorri nintzen. *Potros* plazan OTANen sartzearen aurkako mitina zegoen eta joan egin nintzen, erdi hilda. Gauean heriotza mehatxuak izan nituen. Poliziak zirela pentsatu nuen eta beraiengana joan nintzen. Nire telefonoa zulatzeko eskatu nien eta deiak jasotzeari utzi nion. Handik gutxira LABeko bi lagun hil zituen poliziak kontrol batean eta Osaba taberna ondoan bilera baterako deia jaso nuen gutun bidez. Ez nion susmo onik hartu eta enpresa batzordean aurkeztu nuen. Tarte batean oso gaizki ibili nintzen. Mehatxu asko jaso nituen eta autoan egiten nuen lanerako joan-etorria.

Gainera, 1979an, lehen udal hauteskundeetan alkatetzarako aurkeztu zinen.

Herri Batasuna orduan ari zen sortzen, baina ni Organización de Izquierda Comunista (OIC-EMK) alderdiko kidea nintzen. Orduko EMK, Zutik da egun. ETAtik irtendako jendeak sortutako alderdia zen. LKI, EE, EIA... denok elkarrekin geunden LAB sindikatuan. Hauteskundeak heldu zirenean OIC-EMKrekin aurkezteko eskatu zidaten. Nitaz gain, independenteekin Juanito Arbizu aurkeztu zen, PNVrekin Caldeyf enpresako Etxeberria, Herri Batasunarekin Oñatibia medikua, PSOErekin Teofilo Portugal eta PCErekin Franco abizeneko bat. Emaitza txarra lortu genuen, 78 boto besterik ez. Garai hartan alderdi komunistak oso gaizki ikusiak zeuden eta sekulako disgustua eman nion amari. Dena den, berehala Herri Batasunan sartu nintzen eta ordutik alderdi horretakoa naiz. Hauteskunde batzuetan laugarren aurkeztu nintzen, baina ez naiz sekula zinegotzia izan.

> "10 bat urterekin egurra biltzera joaten nintzen mendira eta gero gozo-dendetan saltzen nuen"

Guraso elkarteko lehendakaria ere izan zinen urte batzuetan.

Hemen ez zen ezer antolatzen gazteentzat eta 70eko hamarkada bukaeran jaiero Urretxuko pilotalekuan dantzaldia antolatzen hasi ginen. Igandero orkestra bat ekartzen genuen eta defizitarioa zen, sarrera merke kobratzen baikenuen. Orquesta Mondragon ere ekarri genuen! Legazpin dantzalekua jarri zuten eta gurea, sekulako lana egin arren, gainbehera hasi zen.

Herri Aldizkaria Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
Javier Arratibel optika
Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak
Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84

SUTAN
Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz


Jose Mari Azkarate, eskubitik lehena, Herri Batasunaren mitin batean.

Zure seme-alaben eskolan ere lan egin zenuen.

Orain Gainzuri den Juan XXIII ikastetxeko gurasoen elkarteko lehendakaria izan nintzen. Gainzuri gure lanaren emaitza da. Gure helburua euskal eskola publikoa bultzatzea zen, Ikastolari inongo inbidiarik izango ez ziona. Ikastolan aita Orbegozo zegoen presidente garai hartan, gizon jatorra. Ez zuten haur gehiago hartzeko tokirik eta toki eske etorri zen guregana. Euren ideiak guri pasatzea eskatu genien trukean. Asanblada gogorra izan genuen: jende asko izan genuen kontra, eskolan erdaldun asko baikenituen. Batek nahi nuen eskola ez nuela sekula lortuko esan zidan, baina lortu dugula uste dut. Azkenean, Gainzuri Zelai-Ariztiri nagusitu zitzaion.

Noiz jubilatu zinen?

80ko hamarkadan krisi handia izan zen: ez zegoen lanik, Irimok ez zuen altzairua ordaintzeko dirurik, inor ez zen enpresaz fidatzen eta ez zuen lehengaia lortzerik. Abuztu batean elkartu eta enpresako kudeatzaileak, Ramon Iriondok, ez zegoela irtenbiderik eta itxi egin behar zela esan zigun. Oporretara joandako lankide guztiak asanblada batera konbokatu genituen eta sozietate anonimo laborala (SAL) egitea erabaki genuen. Gu izan ginen Euskal Herrian lehenak. Martxan ipintzeko dirua behar zen eta Lan Ministeriora jo genuen. Calvo Ortega ministroarekin bildu eta 250 milioi pezeta lortu genituen. Irimon 700 bat lagun ginen, baina kooperatiba egiteko 500 soilik izan gintezkeen. Gure kudeatzaileak aurrezki kutxekin eta bankuekin ere negoziatu zuen eta bakoitzak 10 milioi jartzea lortu zuen. Banco Bilbaok ez zuen jarri nahi eta Bilbora joan ginen autobusean: bankuko egoitzan sartu eta pezeta batekin kontu korronteak irekitzen hasi ginen. Azkenean, banku guztiek dirua jartzea lortu genuen. Irimo zutik utzi genuen, baina 60 urterekin jubilatu ginen. 46 urte lan egin ondoren, soldataren %60 besterik ez nuen kobratzen.

> "Irimoko langileak izan ginen Euskal Herrian sozietate anonimo laborala egiten lehenak"

Hala hasi al zinen jubilatuen eta alargunen eskubideen alde lanean?

Emazteari jubilatzen nintzenean dena utziko nuela eta nire denbora guztia berari emango niola agindu nion. Izan ere, sufrimendu handiko bizitza eman diot. Emaztea baino handiagorik ez dago niretzat: lagundu, animatu... egin nau. Jubilatu ondoren, etxera joan eta bere esanetara nengoela esan nion: ez Batasuna, ez LAB, ez ezer. Emazteak, ordea, ordura arte besteen alde lan egin nuela eta nire alde egiteko garaia zela esan zidan. Hala sartu nintzen Appalur-en.

Lan asko egin duzue. Gustura al zaudete orain arte lortutakoarekin?

Lan asko egin dugu eta asko egingo dugu. Alargunek senarraren soldataren %45a kobratzetik %52a kobratzera pasatzea lortu dugu. %70a eskatzen dugu. Aurrejubilatuei dagokienez, gutako batzuk %60a bakarrik kobratzen genuen, baina %70 lortu dugu dagoeneko. Gure helburua

%100a eta paktuetan ordezkaritza lortzea da. Sindikatuek ez gaituzte behar bezala ordezkatzen. Eurek baino afiliatu gehiago ditugu eta alderdi politikoa aterako bagenu kolpe handia emango genioke gobernuari. Pentsionistok estatua xahutzen ari garela diote, baina diputatuek asko irabazten dute eta 11 urte lan egitearekin nahikoa dute %100eko pentsioarekin gelditzeko. Besteok 65 urte bete arte lan egin behar dugu horretarako. Aurejubilatuei esan, lanean segituko dugula baina euren laguntza behar dugula.

Urretxu-Zumarragako LAB sindikatuko kideekin enplegu bulegoan egindako protesta batean.

Jubilatu ondoren ere zeregina topatu zenuen arren, denbora librea izango duzu. Zer egiten duzu halakoetan?

Mendira, perretxiko bila eta hondartzara asko joaten naiz, beti emaztearekin. Donostian etxe txiki bat dugu eta denboraren erdia bertan ematen dut. Dena den, ez ditut urretxuar eskubideak galdu nahi. Orain arte San Martin jaietako arduraduna izan naiz eta orain Luis Mari Perezi pasatu diot lekukoa. Dena den, lanean jarraitzen dut. Aupa Urretxu!

Realeko zaletua ere ba omen zara...

Sozioa eta akzionista naiz. Asko sufritzen dut. Egia esan behar badut, Realak loa kentzen dit. Umetatik zalea naiz. Emaztea nafarra da, baina bera ere bazkidea da. Aurten ere zulotik irtetea espero dut. Denoi komeni zaigu Reala zulotik irtetea. Gipuzkoako enpresa handiena da eta hori hondoratuz gero, denok nabarituko dugu. Aurten krisia denboraldi hasieran heldu da eta hori amaieran heltzea baino hobea da.

Honen guztiaren ondoren, nola definituko zenuke zeure burua?

Beti izan naiz baikorra, hori interesatzen baitzait. Esaten ditudan gauzak nik sinesten ez baditut, alferrik ari naiz. Nik neuk sinestu behar dut lehenengo, gero besteei esateko. Baikorra ez dena, etxean gera dadila.

Mikel Landa: VIP jende

Mikel Landa sukaldari zumarragarra gure artean izan da azaroan. Landa Cadizeko Sotogrande golf klubeko jatetxeko sukaldari burua da. Hasieran ez zuen asko uste ez, gaur egunean Espainiako handi-mandiei jaten ematen arituko zenik. Bere ametsa jatetxea irekitzea da.



Urretxua elkarteko sukaldean.

Nondik datorkizu sukaldaritza zaletasuna?

Familian tradizioa dago, baina hori Euskal Herriko etxe guztietan aurki dezakegu. Oso gurea da: gozatzeko jaten dugu eta ez beharra dugulako. Institutuan UBI errepikatu nuen, ez nuen karrerarik egiteko balio, gogorik ere ez nuen, eta modulu bat egitea erabaki nuen. Andoainen eta Oñatin eman nuen izena, ikusentzunezkoetan eta sukaldaritzan. Lehenengoan hartuko nindutela uste nuen, baina ez zen hala izan.

Ordura arte, sukaldean aritutakoa al zinen?

Tortillaren bat, espagetiak eta txistorra janaren bat edo beste Antiguan eta Santa Barbaran... Oñatin 24 ginen eta ni nintzen esperientzia gutxien zuenetakoa: denak jatetxeren batean aritutakoak edo ostalari familiakoak ziren. Ozta-ozta gainditzen nituen azterketak, baina pixkanaka gustatu egin zitzaidan. Hala, Oñatiko Etxe Haundi jatetxean hasi nintzen lanean.

Nora joan zinen ikasketak bukatu zenituenean?

Urretxuko Aizlarran eta Donibane Lohitzuneko Txalupan izan nintzen. Azken honetan jabetu nintzen zer zen ostalaritza. Hain gogor egin zidaten, non hura jasaten banuen aurrera egingo nuela sinetsi nuen. Bestalde, hizkuntza oztopo latza izan zen: gauza baten bila bidali eta beste bat ekartzen nuen. Hasieran isildu egiten ziren, baina azkenerako asko haserretzen ziren. Batek bakarrik zekien euskaraz eta ni ere ez naiz oso ondo moldatzen.

Non gehiago izan zara?

Iparraldetik Ibizara joan nintzen. 10 bat hilabete eman nituen Luis Irizarren ilobarekin. Oraindik heldugabe nengoen eta ez zuten nigan fede handirik. Dena den, azkartu egin nintzen eta hurrengo urtean berriro deitu zidaten. Sukaldari sentitzen hasi nintzen: ardurak ematen zizkidaten, oztopoak neure kabuz gainditzen hasi nintzen... Sukaldean azkartasuna behar da. Zerbait falta denean edo zer edo zerk kale egiten duenean, bezeroak ezin du itxaron.

Hortik aurrera dena errazagoa izango zen.

Nabarmentzen hasi nintzen. Ezcarayko Echaurren jatetxera joan nintzen, nire ibilbidean gehien markatu nauen tokira. Sona handia du Errioxan. Amak Espainiako gastronomia saria irabazi zuen 1986an eta orain Francis semea da arduraduna. Michelin izar bat dute, Frank Gehry arkitektoak Marques de Riscalentzat egin duen upelategiko jatetxea daramate... Francis laguna dut eta berarekin lan egin nuen aipatutako upelategiaren inaugurazio egunean.

aren sukaldaria

Echaurren jatetxeak zure bizitzan garrantzia handia izan duela diozu.

Bi urte eman nituen bertan eta asko ikasi nuen. Entsaladekin, lehen platerekin, bigarrengoekin, haragiarekin, arrainarekin, postreekin... lan egin nuen. Oso urte onak izan ziren, baina ikasteko mugitu beharra dago. Hori bai, toki guztietan jendearekin ondo bukatzea komeni da. Ezcaraytik Baqueira Beretera joan nintzen eta handik Arzakera. Epe luzeko inbertsioa izan zen. Ondoren Etxarri Aranatzeko Borda jatetxean eta Tafallako Tubalen izan nintzen. Lau hilabete eta erdi eman nituen azken honetan, Cadizetik deitu zidaten arte.

Nolatan bukatu zenuen Cadizeko Sotogrande klubean?

Kudeatzailea eta zuzendaria Errioxara joan ziren sukalde buru baten bila eta Echaurrenekoekin hitz egin zuten. Hangoek nire berri eman zieten. Horregatik esan dut lehen oso garrantzitsua dela toki guztietatik modu onean joatea.

Asko kosta al zitzaizun Cadizera joateko erabakia hartzea?

Alde batetik bestera ibiltzeaz nekatuta nengoen, baina probatzea erabaki nuen. Erronka oso handia eta polita zen: 25 urte besterik ez nituen eta sukalde burua izatea eskaini zidaten. Egun batzuetarako joan nintzen eta izugarri gustatu zitzaidan. Emaitzak berehala ikusi zirela uste dut. Kontratu mugagabea egin zidaten eta egun nire emaztea dena ezagutu nuen. Bizkiak ditugu. Azaroaren 9an zazpi urte bete ziren joan nintzenetik eta, oraindik han banago, gustura nagoen seinale.

Zein izan zen zure ekarpena?

Jatetxe hura gainbehera zegoen, ez dakit zergatik. Ilusioa eta gauza berriak probatzeko gogoa soberan ditut eta hasieratik askatasun handia izan dut. Nire estiloa eman diot jatetxeari: urte hauetan guztietan ikasi dudana eskaintzen dut, nire erara. Ez zait errezetak kopiatzea gustatzen. Ideiak eta kontzeptuak hartu eta nire sukaldaritza jorratzen dut. Sasoiko produktuekin lan egitea izugarri atsegin dut.

Hemengo jakiak eramaten al dituzu?

Bakailaoa, babarrunak, Ibarrako langostinoak, Idiazabalgo gazta... Bestalde, haragi hornitzaileetako bat Cesar Ballina urretxuarra da. Dena den, batik bat tokian tokiko jakiekin lan egitea atsegin dut. Toki guztiak dira oso aberatsak eta tokian tokiko hornitzaileak izatea oso garrantzitsua da. Karta prestatzeko orduan ere bertako tradizioa kontuan izan behar da.

Zer esan dezakezu Sotogrande klubaz?

1.500 bazkide baino gehiago dituen klub pribatua da. Espainiako boteretsuenak bazkideak dira: bankeroak, enpresariak, politikoak, kirolariak... Ez da erraza bazkide izatea lortzea. Raul futbolariak ez du lortu oraindik. Sean Connery ere saiatu zen eta ez zioten utzi, harrokeriaz joan zela eta. Europako klubik onentsuena da eta, Valderramarekin batera, Espainiko onena.

Erraza al da halako toki elitista batean lan egitea?

Beldurtuta joan nintzen. Sukalde burua nagusia da eta ordura arte ez nuen halako ardurarik izan. Klubean asko eskatzen dute eta maila eman behar da. Egia esan, jendea pozik da eta onespena lortu dut. Sukalde burua ez da sukaldaria bakarrik, harreman publikoez ere arduratu behar da. Bazkideekin hitz egin behar da. Batzuetan deitu egiten didate, zoriontzeko... edo zerbait ez zaiela gustatu esateko. Bezeroen artean, denetik dago. Batzuk oso xumeak dira eta beste batzuekin, berriz, kontu handiagoz ibili behar da.

Etorkizuna, nola ikusten duzu?

Helburuetako bat nire jatetxea izatea dut. Sotograndetik gertu dagoen bat hartzeko zorian izan nintzen, baina diru asko eskatzen zuten eta, gainera, nire emaztea haurdun geratu zen. Orain haurrak hezi nahi ditut, baina gaztea naiz eta baliteke hemendik urte batzuetara berriro egitasmo horretan murgiltzea. Ez dakit ametsa han edo hemen gauzatuko dudan. Zenbat tokitan izan naizen ikusita, ez naiz ezer esatera ausartzen. Nire ibilbide profesionala patuak gidatu du, unean-uneko egoerak.

Montajes e Instalaciones Eléctricas
HERCE
Elektrizitatea, M. E.
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa
Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392
20700 URRETXU

TABERNA
Iturreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belarzain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Denda alokatu edo saltzen da Antzuolan
Martxan dagoen argazkidenda-bitxitegia
943 78 70 66
635 757 271

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Esteban Txintxurre

Kirolariek ahalegin handia egin behar izaten dute gailurrera heltzeko eta profesional mailako ibilbidea laburra izaten da gero. Urte batzuen ondoren, euren belaunaldi kideek soilik gogoratzen dituzte haien garaipen gogoangarriak. Hala, egungo gazte gehienek ondotik pasatu eta ez dituzte garai bateko kirol izarrak ezagutzen. 60ko eta 70eko hamarkadetan urretxuar eta zumarragarrei poz handiak eman zizkieten hiru lagunekin izan gara: Angel Askasibar txirrindularia, Agustin Erostarbe pelotaria eta Esteban Txintxurreta futbolaria. Ale honetako protagonista azken hau da.



Murtzia taldearen elastikoarekin.

Esteban Txintxurreta zumarragarrak 10 urte eman zituen futbol profesionalean, batez ere familia aurrera ateratzeko eta etorkizun oparo bat ziurtatzeko helburuarekin. Golegile ona zen eta taldeak atzetik zituen. Eskaintza ona non, Esteban han. Hala, talde askotan jokatu zuen: Beasain, Reala, Eibar, Santanderreko Racing, Murtzia, Ourense eta Real Union. Erretiratu zenetik Donostiako Igeldo auzoan bizi da, baina urtero etortzen da Santa Isabeletan eta Gabonetan eta koadrilarekin harremana du oraindik.

Txintxurreta eitzatarra da eta bertako pilotalekuan hasi zen. "Pilotan eta futbolean jokatzen genuen, baina futbola nahiago nuen. 20 urterekin seminariotik irten nintzen eta Beasaingoak etorri zitzaizkidan. La Salleko txapelketetatik-eta ezagutzen ninduten".

Orduan, 1966an, Beasain Preferente mailan zegoen. Txintxurretak laster egin zuen gora. "Beasainen bi urte eman nituen eta gero Sansera joan nintzen. Bigarren urtean Realera igo ninduten, baina Eibar eta Racing taldeetara bidali ninduten utzita. Azken hau Bigarren Mailatik jaisteko zorian zen eta bi gol sartu nituen. 1972an Realak Bigarren Mailako Murtziara saldu ninduen. Lehen Mailara igo ginen, Elcherekin eta Racing-ekin batera". Azken talde honetan estima handian zuten Txintxurreta, mailari eusten lagundu baitzien. Hala, hara itzuli zen. Ourensen eta Real Unionen ere jokatu zuen.

Hamar urte eman zituen futbol profesionalean, baina beste askori ez beza-

ta: futbolari ibiltaria

Racing taldean jokatzen zuenean, makurtuta erdian.

Argixao inauguratu zen egunean, ezkerrekoa.

la, ospeak eta diruak ez zion burua galduarazi. "Tarte horretan, maisu-ikasketak, PREU (unibertsitatera sartzeko ikasturtea) eta filosofia egin nituen. Gainera, Eibarren jokatu nuen bitartean, Donostiako Marianistetan irakasle izan nintzen". Txintxurretak ordaintzen ziotelako jokatzen zuela aitortzen du. "Diru horrekin etxean lagundu nuen, ikasketak egin nituen eta bi etxebizitza erosi nituen. Zaletasun hutsagatik ez nuke jokatuko".

Soldata truke edozein tokitara eta postutara moldatzen zen. "Puntan jokatzen nuen, baina atzelari hasi nintzen. Beasainen pasatu ninduten aurrelari postura. Buruz moldatzen nintzen hobekien. 1972an, Sansen, 19 gol sartu nituen itzuli bakarrean. Eibarren nengoela, ni izan nintzen hiru maila nagusietan gol gehien sartu zituena eta sari bat eman zidaten". Bi gol gogoratzen ditu bereziki. "Bata Beasainekin sartu nuen eta bestea Atotxan Sanserekin. Ikusleek zapiak atera zituztela oroitzen dut".

Txintxurretak bere buruarengan konfiantza handia zuen, gainera. Behin egun zuen apustua gogoratzea besterik ez dago. "Eibarren nengoela, partida bat hasi aurretik, Iñaki Aierbe pilotari zumarragarrari hiru gol sartuko nituela esan nion. Lau sartu nituen!".

Eibartarrek Esteban Txintxurreta estimu handian zuten, baina berak ere bihotzean darama Debabarrenako herria. "Eibarrek aukera handia eman zidan eta oso pozik egon nintzen bertan. Lagun asko egin nituen eta oraindik adiskideak ditut. Dena den, gainontzeko tokietan ere lagun asko egin nituen".

Jokalari ospetsu asko ere ezagutu zituen. "Murtziara joan nintzenean, Irulegi zegoen han. Garai hartan Real Madril zen onena, baina Murtzian bertan argentinar oso onak zeuden. Dena den, gustukoenak Irureta eta Garate nituen. Realean atezainak ziren oso onak. Nire garaikoa Esnaola izan zen. Sansen Javi Elkoro, Inaxio Kortabarria eta ni ginen herrietakoak. Inaxio baino lehenago igo nintzen lehen taldera, baina bera benetan berezia zen. Defentsa da eta mareatu egiten nau!, pentsatzen nuen. Kategorikoa zen".

Alde batetik bestera ibili zen, baina ez zitzaion batere gogorra egin. "Murtziara joatea gogorra egin zitzaidan, baina bizpahiru hilabetetan moldatu nintzen. Ourensera joatea ez zitzaidan hain gogorra egin jada".

1976an hartu zuen erretiroa. "Bi urte neramatzan lanean eta horretara dedikatzeko garaia zela iruditu zitzaidan. Real Unioneko entrenatzaileari esan eta taldea utzi nuen, baina Gabonetan itzultzeko esan zidan. Ezetz esan nion. Hainbat enpresatako ordezkari lanetan aritu nintzen eta 1991an lan egiteari utzi nion".

Berak utzi zuenetik, futbola asko aldatu dela uste du, bai onerako eta baita txarrerako ere. "Orain sekulako abiadan jokatzen dute. Lehen baino partida hobeak ikusten dira, baina askotan ez da talde izaerarik ikusten. Talde moduan jokatzen genuen: korrika egin eta lagundu".

Anoetara joateari utzi dio. "Realak hiru edo lau urte oso txar daramatza. Ikustera joateari utzi diot, haserretuta itzultzen bainintzen etxera. Bazkidea naizen arren, telebistan ikusten dut. Umeak iruditzen zaizkit, bigunak...".

Iñigo Cantero

Canterok La Salle-Legazpin egin zituen oinarrizko ikasketak eta handik Institutura joan zen. "Hura paradisua iruditu zitzaidan. Erreformatorio batetik irten eta nahi dena egitera pasatzea bezala izan zen. Apirilerako eguzkiak belztuta egoten nintzen", oroitzen du.

Ez da harritzekoa Institutua utzi eta berehala lanean hastea. "Donostiako fotomekanika lantegi batean lana eskaini zidaten eta ez nuen zalantzarik izan. 13 urte eman nituen bertan: lehenengo amonaren etxean eta gero alokatutako pisu batean bizi izan nintzen". Seme zaharrena jaio zenean Goi Design inprimategira etorri zen. Iñigok eta bere lankideek Otamotz inprimatzen dute, besteak beste. Bere lana gustuko du. "Gauza ezberdinak egiten ditugu eta batzuetan sormen lana ere badugu. Okerrena, beti presaka lan egiten dugula", dio.

Cantero Urola eskubaloi taldeko kidea da umetatik eta horregatik da ezaguna herrian, batez ere. "La Salle-Legazpiko Roman irakasleak eskubaloian izena emanez gero azterketako nota puntu bat igoko zigula esan zigun eta hala hasi nintzen, 11 urterekin". Urolan hegaleko jaurtitzaile eta pibote postuetan jokatu zuen. "Duela laupabost urte utzi nion jokatzeari, bizkarreko arazoak zirela eta". Ordutik, entrenatzailea da. "Nagusiekin lan egiten dut eta oraindik gauzak doan egiten dituzten batzuk daude. Izan ere, oraingo gazteek ez dute ezer hutsaren truke egiten. Egungo arduradunok uzten dugunean, kirol talde eta elkarte gehienak pikutara joango direla uste dut", dio ezkor.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Realeko futbolaria, baina laister konturatu nintzen ez nuela lortuko.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Alaska tabernan egotea eta lagunekin poteak hartzea. Kirol pixka bat ere egiten dut.

-Bizitzeko toki bat?

Hauxe. Oporretan egoteko, berriz, Cadiz.

-Alaska tabernako terraza ala Ispillako aulkia?

Biak bere neurrian. Beti aulki berean eserita egotea aspergarria izango litzateke.

-Tinta usaina ala Ispillako aldagelakoa?

Ispillako aldagelakoa. Ez da oso ona, baina dagoeneko ohituta nago.

-Gustuko eskubaloi jokalaria?

Perunicic bere garai honetan, Bidasoan zegoenean, eta Bogdan Wenta.

-Urola ikusi duzun jokalaririk onena?

Iker Soraluzeren inteligentzia, Gorka Mendiaren buruestimua eta Rafa Ramosen kalitatea hartuko nituzke.

-Izan dituzun entrenatzaileen artean, nor azpimarratuko zenuke?

Miso Basic bosniarraren eta gure mentalitatearen arteko aldea azpimarratuko nuke.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Guztiak.

-Egindako azken oparia?

Aitari oparitu diodan motozerra. Palentzian etxetxoa du eta joaten nintzen bakoitzean eskuak habaz beteta bukaten nuen.

-Eta jasotakoa?

Semea bizkarrean eramateko aulkitxoa.

-Data bat?

Santa Isabel eguna.

-Neska eta mutil izen bana?

Iñigo eta Ainhoa.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Kafea hartzen dudan tokian erosten dutena. Nik ez dut egunkaria erosteko ohiturarik.

-Gustuko telebista saioa?

Batere ez. Ez dut telebista atsegin, lokartzeko ezagutzen dudan gauzarik onena da.

-Bereziki gorroto duzuna?

Gran Hermano eta halakoak debekatuta daude etxean.

-Liburu bat?

El codigo Da Vinci eta *Los pilares de la tierra*.

-Pelikula bat?

Ez dut oroitzen zein den ikusi dudan azkena. Ezinezkoa iruditzen zait etxean pelikula bat ikusten ari naizela loak ez hartzea. Horregatik utzi nion filmak alokatzeari.

-Soinu bat?

Ez naiz musikazalea. Olatuena esango dut.

-Usain bat?

Batere ez.

-Janari bat?

Sagardotegikoa. Denboraldia haten denean, ia astero joaten naiz.

-Ura ala...

Garagardoa eta ardo beltza. Baita gin-tonic-a ere, baina bakarra.

UGGASA

Urola Garaiko Garapenerako Agentzia

Ezkio-Itsaso • Legazpi • Urretxu • Zumarraga

- Enpresa Ekimen Berriei Babesa
- Eskualdeko Enpresa Txiki eta Ertainei Laguntza Informazioa - Bitartekotza
- Merkataritzari Laguntza Teknikoa
- Langabetuentzako Enplegu Zerbitzuak
- Prestakuntzarako Informazioa
- Eskualde Mailako beste Proiektu batzuk

legazpi@uggasa.com • urretxu@uggasa.com • zumarraga@uggasa.com
943 73 71 83 (Legazpi) • 943 72 61 64 (Urretxu) • 943 72 58 29 (Zumarraga)

SUKALDE ERAKUSKETA

Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE